



## BEZEROEKIN HARREMANA

Bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, helbide elektronikoa eskuragarri egongo da edozein bezeroarentzako, bertan, arazo eta kezkek argitu ahalko dira. Saiatzen gara lehen bailen erantzuten. Helbide elektronikoa honako hau da; [Etorkia@gmail.com](mailto:Etorkia@gmail.com).

Bestalde, web orrialde bat egin genuen, han informazio orokorra dago bilduta. Gainera, bezeroek haien galderak besteekin banatu eta bertan erantzuten ditugu, honela, norbaitek arazo bera edukiko balu, azalpen horrekin, konponbide ugariak edukiko lituzke.

Hasteko, aipatutako Web orrialdearen barruan, bezeroak gurekin harremanetan jartzeko bi modu egongo dira. Alde batetik, foru bat egongo da non kezkek, zalantzak eta ardurak argitzeko aukera emango da. Foruak eskaintza handia edukitzekotan, guk erantzun arte itxaropen denbora gehiago nabaritutako da.

Bestalde, gure helbide elektronikoaren erabilpena, kezka garrantzitsuagoak argitzeko erabiliko da. Baliabide hau ardura gehiagokoa denez, mezua, esan bezala, 24 ordu, gehienez, iraunduko du itxaropenak.

Web orrialdea edo gmail-aren bidez gaizkiulertuak egongo balira, denda fisiko bat egongo da harremantzeko, bertan, bulego bat eta gure produktuaren hainbat adibide daude, ikutu eta errealitatean zer den ikusteko bezerorenbat gerturatuko balitz.

Denda txiki bat dugu Donostian, espreski **Hondarribia Kalea 3-5en**, baina hau ez da eguneko ordu guztietan irekia egongo. Goizetan, 9:00tatik, 12:00etara eta arratsaldetan, ordea, 16:00tatik, gaueko 20:00ak arte. Egun eta ordu berean jende

asko hurbilduko balitz, ordua hartu eta bezeroari beste egun baterako emango genioke ordua.

Honen zergatia da dendan soilik langile bat jendearen aurrean egongo delako da, eta honek ezingo duenez denen arazoak argitu, esan moduan, beste egun baterako ordua emango zaio.

Etorkia erosten duten bezeroak, beraiekin harremana mantenduko dugu posta elektronikoz. Horrela aterkiaren berrikuntzak egongo balira, azkeneko bertsioa bidali diezadiegu. Honetaz gain, enpresaren arazo bat edo produktuarekin arazo orokor bat egotekotan eta konpontzeko aukera gure bitartekoa denean, honela aukera bikaina izan daiteke azakar batean konpontzeko.

Gure helburu nagusia da, bezeroarekiko harreman eroso eta zuzenena edukitzea. Baita ere kontuan hartzen dugu, kontaktuan jartzean komunikazio zuzen eta argia izatea, tratatu hoberena sortzeko gure artean.

